



**AIARAKO UDALAK 2021eko MARTXOAREN 18an EGINIKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**UDALBURUA**

Gentza Alamillo Udaeta jn.

**ZINEGOTZIAK:**

Iñigo Pinedo Vadillo jn.  
Montse Angulo Solloa and.  
José Antonio Bartolomé Pesquera jn.  
Itxaso Gorbeña Allende and.  
Unai Campo Arenaza jn.  
Susana Martín Benavides and.  
Karmele Población Martínez and.  
Marian Mendiguren Mendíbil and.  
Koldo Mendioroz Goldaraz jn.  
Iratxe Parro Uzquiano

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hogeita bateko martxoaren hemezortzian, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta Alkate jauna da mahaiburua eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas idazkari andreak, lagundu ditut eta ekitaldiaren fede eman dut.

**IDAZKARIA:**

M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas and.

Alkate jaunak ongietorria eman die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

**1.- Onestea, bidezkoa bada, 2021eko martxoaren 4an eginiko premiazko ezohiko Osoko Bilkuraren akta.**- Ez da inongo esku-hartzerik egin eta aipatutako Akta aho batez onetsi da.

**2.- Udalbatzaren Erabaki proposamena, Aiarako Udalaren eta Aiarako gaixotasun mentala duten pertsonen eta senideen elkartearen (ASASAM) arteko 2021eko Lankidetzahitzarmena onestekoa.**- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Aiarako Udalaren eta Aiarako gaixotasun mentala duten pertsonen eta senideen elkartearen (ASASAM) arteko 2021erako lankidetzahitzarmena. Horrek honako hau dio:

**“ERABAKI-PROPOSAMENA:**

***IKUSIDA.-*** ASASAM irabazi asmorik gabeko elkarreak Aiarako Eskualdean egiten duen lana, udalerriko hainbat pertsonari mesede egiten diena, orain arte egin den moduan sustatu eta elkarrekin lan egiteko udal-interesa.

***IKUSI DA.-*** ASASAM elkartearen eta Aiarako Udalaren arteko Lankidetzahitzarmenaren proposamena, aipatutako elkartearen 2021. urteko ekintzen gastuen zati bati diru-laguntza ematekoa.



**AINTZAT HARTU DA.-** 2021eko aurrekontuan, hitzarmen honek adierazten dituen gastuei aurre egiteko nahikoa diru dagoela 2020ko aurrekontuko 231.481.030 partidan.

Aurreko guztia dela eta, Udalbatza Osoak honako **ERABAKI** hau onetsi dadin proposatu du:

**Lehenengoa.-** Onestea Aiarako Udalaren eta Aiarako gaixotasun mentala duten pertsonen eta senideen elkartearen (ASASAM) arteko Lankidetzeta-hitzarmena, 2021. urterako. Horren testua honako hau da:

**"CONVENIO DE COLABORACIÓN DEL  
"AIARAKO UDALAREN ETA AIARAKO GAIXOTASUN MENTALA DUTEN  
PERTSONEN ETA SENIDEEN ELKARTEAREN (ASASAM) ARTEKO LANKIDETZA-  
HITZAREMENA. 2021. URTEA**

Arespalditzan, 2021eko martxoaren (e)an.

**HONAKO HAUEK BILDU DIRA:**

Alde batetik, Gentza ALAMILLO UDAETA Aiarako Udaleko alkate-udalburu jauna, Aiarako Udaleko idazkari andreak lagunduta.

Beste aldetik: andrea, adinez nagusikoa (NAN zk.: ), Arabako gaixotasun mentala duten pertsonen eta senideen elkartearen (hemendik aurrera Asasam) presidentea.

**ESKU HARTZEN DUTE:**

Lehenengoa Aiarako Udaleko alkate-udalburua, toki erakunde honen izenean eta ordezkartzan, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritz.

Bigarrenak, ASASAM elkartearen (IFZ: G01048594) izenean eta horren ordezkari gisa; bere ordezkartza erantsitako egiaztagiriaren bidez frogatzen da.

Bi aldeek elkarri aitortu diote **Lankidetzeta-hitzarmen** hau osatu eta betetzeko gaitasun juridikoa eta erabateko gaitasuna, eta, horretarako,

**HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:**

**1.-** ASASAM elkarte irabazi-asmorik gabeko elkarte dela eta gaixotasun mentalak dituzten pertsonen eta horien familiek osatzen dutela. Horien xedea da



*gaixotasun mentala duten pertsonen kolektibo osoari arreta eskaintzea, urteetan zehar hainbat programa eta proiektu garatzearen bidez:*

- *Gizarte-ekintzako programa*
- *Gizarte-hezkuntzako Kontu-hartzailera programa*
- *Zentro psikosoziala*
- *Egoitza-programa*
- *Lan eta gizarte-munduan txertatzeko programa*
- *Laguntza eta orientabide psikologikoa*
- *Esku-hartze Komunitarioko programa*

**II.-** *Aiarako Udalak, ASASAMek eskualde honetan egiten duen gizarte-lanari erreparatuta eta aintzat hartuta Aiara udalerriko herritarrei zuzenean onura egiten diela, jarduera hori babestea erabaki du, besteak beste, Hitzarmen honen bidez, urteko dirulaguntza arautzen duena eta urtean zehar jarduerak egin ahal izateko beharrezkoa dena.*

**III.-** *Aplikatzekoa den legeria zehatz-mehatz betez, eta Lankidetzak-hitzarmenak sinatzeko Toki Erakundeek duten eskumenari jarraiki, bi aldeek Lankidetzak-hitzarmen hau formalizatzen dute, eta jarraian adierazitakoak bete beharko dituzte.*

### **HIZPAKETAK:**

**LEHENENGOA.-** *Hitzarmen honen xedea da, Udalaren aldetik, ASASAMek 2021. urtean zehar gauzatuko dituen ekimen eta jarduerak sustatzen laguntzea, aipatutako pertsonen kolektiboa gizarteratu eta garatzeko. Hitzarmen honen bidez diruz lagunduko diren jarduerak “Adierazpenak I” atalean adierazitakoak dira.*

**BIGARRENA.-** *Aiarako Udalak garatuko duen sustatzekoa den jardueraren edukia ASASAMek aurreko atalean gauzatutako jarduerak dakartzaten gastuak diruz laguntzean datza.*

**HIRUGARRENA.-** *Administrazio honek emango duen dirulaguntza jarduera sustatzeko erabiliko da, eta goian adierazitako jarduerak egitean sortutako gastuak ordaintzera bideratuta egongo da.*

*Dirulaguntza jarduerak gauzatzean sortutako gastuen arabera kalkulatu da, ASASAMek bere jarduerarako jaso ditzakeen beste dirulaguntzen diru-sarrerak kenduta.*

*2021 ekitaldirako hitzarmen honi dagokion udal dirulaguntza gehienez ere BOSTEHUN (500) EUROKOA izango da.*

**LAUGARRENA.-** *Urteko udal-dirulaguntzaren zenbatekoa JUSTIFIKATZEKO (gehienez ere 500 €), adierazitako dokumentazioa aurkeztuko da, honako zenbateko honi dagokiona:*



a) Diruz lagundutako jarduketak finantzatzeko jasotako dirulaguntza guztien adierazpena, erakunde publikoak zein pribatuak izan.

b) Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen agiria.

c) Jarduerari lotutako honako dokumentu hauek:

- Diruz lagundutako ekitaldiko Gastu eta Diru-sarreraren balantzea
- Diruz lagundutako ekitaldiko Jardueraren Memoria (gauzatutako jardueraren ebaluazio-fitxa eta hori egin izanaren zinpeko adierazpena)
- Amaitutako urtearen memoria ekonomikoa (jardueren gastua + funtzionamendu gastua), gastu eta diru-sarrerekin, dagozkion fakturak eta ordainketa-dokumentuak aurkeztuta.

Lehenengo hizpaketan adierazitako baldintzak ez badira betetzen, ez da dirulaguntza emango eta aurretiaz ordaindutako zenbatekoak aztertzeke prozedurari ekingo zaio.

Hitzaurre honen laugarren hizpaketan eskatutako justifikazioa ez bada aurkezten **2022ko urtarrilaren 31** baino lehen, ez da dirulaguntza emango eta aurretiaz ordaindutako zenbatekoak aztertzeke prozedurari ekingo zaio.

Dirulaguntza hau **ez da bateragarria izango** Udalak urtero deitzen dituen gainerako dirulaguntzekin.

**BOSGARRENA.-** Diruz lagunduko diren jarduerak gauzatzeko epea diruz lagundutako urtearen mugetan egon beharko dira, hau da, 2021 urtearen barnean.

**SEIGARRENA.-** Dirulaguntza ordaintzeko modua honako hau da: Aiarako Udalak ezarritako gehieneko dirulaguntzaren % 80 ordainduko du hitzarmena sinatzean. Gainerako % 20 hitzaurre honen LAUGARREN klausulan adierazitako dokumentazioa aurkeztean ordainduko da.

Aiarako Udalak edozein momentutan eskatu ahal izango du dirulaguntzari edo jarduerari dagozkion edozein informazio.

**ZAZPIGARRENA.-** ASASAMek egiten duen publizitate guztian, Aiarako Udalaren lankidetzara eta babesa jaso beharko da.

**ZORTZIGARRENA.-** ASASAMek hitzaurre honetan jasotako betebeharrak betetzen ez baditu, indarrean dagoen diru-laguntzei buruzko araudian aurreikusitako erantzukizun eta zehapen erregimena aplikatuko da.



*Eta adostutakoarekin bat datozela frogatzeko, aldeek lankidetzeta-hitzarmen honen bi aleak sinatu dituzte, zuzenketarik edo urratzerik gabe, dokumentu hau osatzen duten 4 orrialdeetako bakoitzean, eta hitzematzen dute berau beteko dutela dokumentu honen goiburuan agertzen den lekuan eta egunean.*

*ALKATE-UDALBURUA*

*ASASAMeko PRESIDENTEA*

*Sin.- Gentza Alamillo Udaeta jn.*

*Sin.- jn./and.*

*IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA,*

*Sin.- M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas and.*

*Alkateak eta idazkari kontu-hartzaileak elektronikoki sinatutako dokumentua*”.

***Bigarrena.-** Alkate-udalburuari ahalmena ematea hitzarmena sina dezan.*

***Hirugarrena.-** Erabaki hau ASASAM elkarteari jakinaraztea, hitzarmen hau sinatzeari dagozkion ondorioetarako.*

*Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.*

*Elektronikoki sinatutako dokumentua*”.

Esku hartu du EH Bilduko Karmele Población Martínez andreak eta adierazi du bere taldeak alde bozkatuko duela. Edonola ere, adierazi nahi du 2018ko maiatzean, Emilio Sola diputatua zenean, esan zela Asasamen baliabide gehiago jarriko zirela. Halere, diputatuz aldatzean, badirudi ez zela egokitzat jo baliabide horiek elkartearen eskura jartzea, dirudienez ez zegoelako justifikaturik.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak argitu du ez dela diputatu nagusia aldatu, hori Ramiro González delako oraindik; aldatu dena Gizarte Ongizateko diputatua da, emakume izatetik gizon izatera pasa dena, orain Emilio Sola baita. Gaineratu du Aldundia Gizarte Zerbitzuekin lanean ari dela gai honi dagokionez; beraz, uste du gutxi barru konponduko dela, baina, edonola ere, eskualde mailako zerbitzu bat denez, gaia Kuadrillaren osoko bilkura batera eramango da.

Gai honen aldeko txostena eman zen Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Informazio Batzordearen 2021eko martxoaren 9ko saioan.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du, ohiko bozketan, transkribatutako erabaki proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

**3.- Udalbatzaren erabaki-proposamena Hogeitalau Elkarteari zuzeneko dirulaguntza 2021ean emateari dagokiona.-** Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Hogeitalau Elkarteari 2021erako zuzeneko dirulaguntza emateari dagokion erabaki-proposamena. Horrek honako hau dio:



**“ERABAKI-PROPOSAMENA:**

**IKUSI DA.-** Udalak interesa duela euskararen ezagutza eta erabilera udaleko arlo guztietan sustatzeko.

**IKUSI DA.-** Hogeitalau Euskara Elkartearen izena emanda dagoela Aiara udalerriko elkartearen erregistroan, eta, besteak beste, euskararen ezagutza eta erabilera soziala bultzatzea duela helburu.

**IKUSI DA.-** Aiarako Udala eta Hogeitalau Euskara Elkartearen lankidetzan aritzeko 2021 ekitaldiko hitzarmena, Aiara udalerrian euskara sustatzeko ekimenak eta jarduerak bultzatzeko asmoz.

**AINTZAT HARTU DA.-** 2021erako luzatutako 2020ko aurrekontuan, hitzarmen honek adierazten dituen gastuei aurre egiteko nahikoa diru dagoela.

Aurreko guztia dela eta, Udalbatza Osoak honako ERABAKI hau onetsi dadin proposatu du:

**Lehenengoa.-** Onestea Aiarako Udalaren eta Hogeitalau Euskara Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena (2021 ekitaldia), Aiara udalerrian euskara sustatzeko ekimenak eta jarduerak bultzatzeko.

**“2021erako LANKIDETZA-HITZARMENA,  
AIARAKO UDALA ETA  
‘HOGEITALAU EUSKARA ELKARTEAREN’ ARTEKOA**

Arespalditzan, (e)ko ren (e)(a)n.

**HONAKO HAUEK BILDU DIRA:**

Alde batetik, XXXXXXXXXXXXXXX

Beste alde batetik, XXXXXXXXXXXXXXX

**ESKU HARTZEN DUTE:**

Lehenengoa Aiarako Udaleko alkate-udalburua, toki erakunde honen izenean eta ordezkarietan, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorriz.

Bigarrena, Hogeitalau Euskara Elkartearen (IFZ: G-01326107) izenean eta ordezkarietan. Elkarteak berak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu du bere izaera eta ordezkariak, aktaren fotokopia aurkeztu baitu, eta horren bidez aukeratu eta izendatzen baita Hogeitalau Euskara Elkartearen presidentea (hitzarmen honetan 1. eranskin gisa erantsi da).

Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta Lankidetzaren hitzarmen hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako



**HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:**

*I.- Aiarako Udalak, euskararen ezagutza eta erabilera arlo guztietan sustatzeko udalerriko interes publikoaren arabera, besteak beste, honako ekimen hauen arabera jardungo du:*

- *Aisialdian, kultura eskaintzan, kirolean, etab. euskara erabiltzeko aukerak sortzea.*
- *Euskara ikasten ari diren pertsonen zuzendutako euskara erabiltzea sustatzeko kanpaina eta jarduerak antolatzea.*
- *Euskara ez dakiten pertsonen hori ikasi eta gehiago erabili ahal izateko erraztasun handiagoak sortzea.*
- *Egokitzat jotzen diren bestelako ekimenak.*

*II.- Aiarako Udalak udalerrian euskararen presentzia eta erabilera sustatu nahi du; beraz, hori gauzatzeko, besteak beste, hitzarmen hau sinatzen du. Hitzarmenak Hogeitalau Euskara Elkarteari emango zaion urteko dirulaguntza arautzen du, elkarteak bere urteko jarduerak gauzatu ditzan eta horren funtzionamendu-gastuak estaltzeko.*

*III.- “Hogeitalau Euskara Elkarte” izeneko elkarte aiaratarren zein udalerriko elkartearen eskura dago; izan ere, elkartearen xedea da euskararen ezagutza eta erabilera soziala sustatzea eta sortu zenetik, 2001. urtetik, Aiaran hizkuntza-normalizaziorako etengabeko lana egin du.*

*IV.- Hogeitalau Euskara Elkarteak egiaztatu du sortu zenetik Aiarako Udalarekin lan egiteko interes handia duela, horrekin batera euskara sustatzeko jarduerak antolatzeko. Hori egiaztatu egin dute elkarteak sortu zenetik arrakastaz egiten diren programak gauzatzen dituztelako: Igande Arratsaldeak Familiar, Gabonetako Lehiaketa, etab.*

*V.- Aplikatzekoa den legeria zehatz-mehatz betez, eta Lankidetzak-hitzarmenak sinatzeko Toki Erakundeek duten eskumenari jarraiki, bi aldeek Lankidetzak-hitzarmen hau formalizatzen dute, eta jarraian adierazitakoak bete beharko dituzte:*

**HIZPAKETAK:**

**LEHENENGOA.-** *Aiarako Udalak hitzarmen honekin duen xedea da euskara sustatzeko hainbat ekimen eta jardura sustatzea, Hogeitalau Euskara Elkartearekin lankidetzan eta horrekin koordinatuta.*

**BIGARRENA.-** *Aiarako Udalak 2021ean garatu nahi duen sustapen-jardueraren edukia zehaztuta dago 2021ean Hogeitalau Euskara Elkarteak dituen urteko jardueraren eta funtzionamendu gastuen dirulaguntzan (jardueretan antolatutako lunch eta meriendak barne hartuta). Hori guztia hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera gauzatuko da. Covid-19ak sortutako egoerari dagokionez, aintzat hartu eta aplikatuko dira osasun-agintariek adierazitako neurriak eta betebeharrak.*

**HIRUGARRENA.-** *Aiarako Udalak 2021. urterako Hogeitalau Euskara Elkarteari dirulaguntza emango dio, 4.600,00 euroko gehieneko zenbatekoarekin. Dirulaguntza horren xedea izango da euskara sustatzeko urteko programa garatzean sortutako gastuak eta Hogeitalau Euskara Elkartearen urteko funtzionamendu-gastuak ordaintzea.*



*Ikusi da Aiarako Udalak ez duela sarbiderik urtero Arabako Foru Aldundiak elkarteek gauzatzen duten euskararen sustapena finantzatzeko deitu eta ematen dituen dirulaguntzekiko; beraz, Hogeitalau Euskara Elkarteak eskatu beharko du dagokion dirulaguntza, bere urteko sustapen programaren gastuen zati bat estali ahal izateko. Hogeitalau Euskara Elkarteak Aiarako Udalarai aitortu beharko dio Arabako Foru Aldundiak emandako urteko dirulaguntza.*

**LAUGARRENA.-** *Diruz lagunduko diren jarduerak gauzatzeko epea diruz lagundutako urtearen mugetan egon beharko dira, hau da, 2021 urtearen barnean. Hogeitalau Euskara Elkarteak egiten dituen aparteko jardueren kasuan, Hitzarmen honetan ezarritako urteko gehieneko dirulaguntza gainditzen badute eta hori ez bada nahikoa, horiek elkarteak berak ordaindu beharko ditu eta ez ditu inolaz ere Aiarako Udalak ordainduko.*

**BOSGARRENA.- JUSTIFIKAIZOA** *Hogeitalau Elkarteak diruz lagundutako urtearen hurrengo urtarrilaren 31n Udaleko Erregistro Orokorrean honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:*

- a) *Diruz lagundutako jarduketak finantzatzeko jasotako dirulaguntza guztien adierazpena, erakunde publikoak zein pribatuak izan.*
- b) *Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantzza ordaindu izanaren ziurtagiria, edo, hala badagokio, presidenteak sinatutako baimena Udalak erakunde horiei aipatutako baimenak eskatzeko.*
- c) *Jarduerari lotutako honako dokumentu hauek:*
  - *Diruz lagundutako ekitaldiko Gastu eta Diru-sarreraren balantzea*
  - *Diruz lagundutako ekitaldiko Jardueren Memoria (gauzatutako jardueraren ebaluazio-fitxa eta hori egin izanaren zinpeko adierazpena)*
  - *Amaitutako urtearen memoria ekonomikoa (jardueren gastua + funtzionamendu gastua), gastu eta diru-sarrerekin, dagozkion fakturak eta ordainketa-dokumentuak aurkeztuta.*

**SEIGARRENA.-** *Dirulaguntza ordaintzeko modua honako hau da: Aiarako Udalak ezarritako gehieneko dirulaguntzaren % 80 ordainduko du hitzarmena sinatzean.*

*Gainerako zenbatekoa, bidezkoa bada, Hogeitalau Elkarteak aurreko puntuan adierazitako justifikazioa aipatutako epean aurkezten badu ordainduko da.*

*Aiarako Udalak edozein momentutan eskatu ahal izango du dirulaguntzari edo jarduerari dagokion edozein informazio.*

*Hogeitalau Euskara Elkarteak egiten duen publizitate guztian, Aiarako Udalaren lankidetzeta eta babesa jaso beharko da.*

**ZAZPIGARRENA.-** *Hogeitalau Euskara Elkarteak dagokion proiektua eta eskaera aurkeztu beharko ditu Udalean urteko ekitaldiaren hasieran.*

**ZORTZIGARRENA.-** *Hogeitalau Euskara Elkarteak hitzarmen honetan jasotako betebeharrak betetzen ez baditu, indarrean dagoen diru-laguntzei buruzko araudian aurreikusitako erantzukizun eta zehapen erregimena aplikatuko da.*

*Eta adostutakoarekin bat datozela frogatzeko, aldeek lankidetzeta-hitzarmen honen hiru aleak sinatu dituzte, zuzenketarik edo urratzerik gabe, dokumentu hau osatzen duten 4*





*orrialdeetako bakoitzean, eta hitzematzen dute berau beteko dutela dokumentu honen goiburuan agertzen den lekuan eta egunean.*

*ALKATE-UDALBURUA*

*HOGEITALAU ELKARTEAREN PRESIDENTEA*

*Nire aurrean, IDAZKARIA”*

**Bigarrena.-** Alkate-udalburuari ahalmena ematea hitzarmena sina dezan.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau Hogeitalau Euskara Elkarteari jakinaraztea.

*Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.*

*Elektronikoki sinatutako dokumentua”.*

Gai honen aldeko txostena eman zen Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordearen 2021eko martxoaren 9ko saioan.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du, ohiko bozketan, transkribatutako erabaki proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

**4.- Udalbatzaren erabaki-proposamena Aiaraldea Kooperatiba Elkarteari zuzeneko dirulaguntza 2021ean emateari dagokiona.-** Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Aiaraldea Kooperatiba Elkarteari 2021erako zuzeneko dirulaguntza emateari dagokion erabaki-proposamena. Horrek honako hau dio:

**“ERABAKI-PROPOSAMENA:**

***IKUSI DA.-*** Udalak duen interesa, gure udalerrian euskara sustatzeko eta horretan laguntzeko, orain arte egin duen moduan, horrek udalerritari mesede egiten diolako.

***IKUSI DA.-*** “AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEA” elkartearen eta Aiarako Udalaren arteko Lankidetzeta-hitzarmenaren proposamena, aipatutako elkartearen 2021. urteko ekintzen gastuen zati bati diru-laguntza ematekoa.

***AINZAT HARTU DA.-*** 2021erako luzatutako 2020ko aurrekontuan, hitzarmen honek adierazten dituen gastuei aurre egiteko nahikoa diru dagoela.

*Aurreko guztia dela eta, Udalbatza Osoak honako ERABAKI hau onetsi dadin proposatu du:*

**Lehenengoa.-** Onestea Aiarako Udalaren eta “AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEA” elkartearen arteko Lankidetzeta-hitzarmena, 2021. urterako. Horren testua honako hau da:



**AIARAKO UDALA ETA "AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEA"  
LANKIDETZAN ARITZEKO 2021 EKITALDIKO HITZARMENA, TOKIKO EUSKARAZKO  
HEDABIDEAK SUSTATZEA ETA FINANTZATZEA HELBURU DUENA.**

AIARAKo Udalean, 2021eko ren (e)(a)n.

**HONAKO HAUEK BILDU DIRA:**

Alde batetik, GENTZA ALAMILLO UDAETA AIARAKo Udaleko alkate-udalburu jauna (NAN zk.: 44.686.448-R), aipatutako erakundearen izenean, eta Aiarako Udaleko idazkariak lagunduta, M<sup>a</sup> DEL CARMEN ROJO PITILLAS (NAN zk.: 22.728.430-Z), dena ziurtatzen duena.

Beste alde batetik, LUIS XABIER UGALDE GULIAS jauna, AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAren presidentea (NAN zk.: 14.949.925-V), aipatutako erakundearen izenean (IFZ: F-01468248).

Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta Lankidetzeta-hitzarmen hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako

**ADIERAZTEN DUTE:**

Etorkizuneko Informazioaren gizartean oso garrantzitsua da euskararentzako hurbileko komunikazio espazioak sortzea, are gehiago aintzat hartuta hizkuntza baten normalizazio prozesuan komunikazioak eta komunikabideek duten garrantzia.

Hori da, zehazki, 'AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEA' irabazi asmorik gabeko eta gizarte-ekimeneko elkartearen xedea (2017. urtera arte 'Info-Aiaraldea Kultura eta Komunikazio Elkarte' izan zen, eta orain legez elkarte izatetik kooperatiba izatera pasa behar izan da). Berez, elkarte Aiaraldean euskararen komunikazioa sustatzeko sortu zen eta euskarazko komunikazio-jarduerak eta komunikabideak abian jarri eta garatu nahi ditu. Era berean, komunikazioaren arlo tradizionalekin zein berritzaileekin lan egiten du gizarte-kohesioaren alde, inongo irabazi-asmorik gabe eta administrazioekin, agente ekonomikoekin eta gizarte eta kultura agenteekin lankidetzan.

Xede horiek lortzeko, 'AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEA' eta AIARAKO UDALAK adierazi dute konpromiso bat dutela euskarako tokiko komunikabideak sustatu eta laguntzeko, eta zehazki 'AIARALDEA HEDABIDE TALDEAK' kudeatu eta sustatzen dituen komunikabideak laguntzeko konpromisoa hartzen du. Aipatutako komunikabide horiek [www.aiaraldea.eus](http://www.aiaraldea.eus) ("Aiaraldea Gaur") eta bi astean behin argitaratzen den "Aiaraldea Hemen" aldizkaria dira. Izan ere, komunikazio horien bidez hizkuntza-normalizazioa sustatzen da eta AIARA udalerririk onura handiak hartzen ditu.

AIARAKo Udalak uste du udalerririk mailako interes publikoa duen proiektu bat dela. Era berean, Eusko Jaurlaritzak aitortu du kooperatibak "gizarte ekimeneko" izaera duela.



*Beraz, erakundeek euskarazko tokiko komunikabideen sustapenean inplikazio aktiboa izan dezaten, bi aldeek honako lankidetzeta-hitzarmen hau sinatzen dute. Honako hau da horren edukia:*

**KLAUSULAK:**

**Lehenengoa.-** Hitzarmen honek zehaztu egiten du AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEA eta AIARAKO UDALAREN arteko 2021erako lankidetzeta, euskararako komunikabideei dagokienez.

*Urte bakoitza hastean, Aiarako Udalak erabakiko du hitzarmena berritu edo ez, dagokion Informazio batzordearen azterketa jaso ondoren, amaitutako urteari dagokion dokumentazioa jaso ondoren eta momentuko urterako baldintzen proposamena jaso ondoren. Hori guztia Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak bidaliko du.*

*Horrenbestez, hitzarmen hau 2021 urterako sinatzen da eta horren iraupena 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra bitartekoa izango da.*

**Bigarrena.-** Hitzarmen hau sinatzen denetik, AIARAKO Udalak eskumena izango du AIARALDEA HEDABIDE TALDEAREN jarduerak eta kontu ekonomikoak ezagutzeko.

*Horretarako, eta bi aldeen arteko lankidetzeta eta harremana iraunkorra zian dadin, Aiarako Udalak eskubidea izango du komunikazio taldearen finantzazio zehatza ezagutzeko eta urteko balorazioak eta planak ezagutzeko.*

*Era berean, hitzarmen hau sinatzen duten aldeetako batek hala eskatzen duenean, bi aldeak elkartuko dira, hitzarmenaren edukien jarraipena egiteko edota horrekin lotutako beste edozein gai lantzeko.*

**Hirugarrena.-** AIARAKO Udalak AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEARI honako ekarpen ekonomikoa egiteko konpromisoa hartu du:

- **2021. urtean: 2.040,30 €.**

*Dirulaguntza ordaintzeko modua honako hau da: Aiarako Udalak ezarritako gehieneko dirulaguntzaren % 80 ordainduko du hitzarmena sinatzean. Gainerako % 20 hitzarmen honen LAUGARREN klausulan adierazitako dokumentazioa aurkeztean ordainduko da.*

*Ekarpen ekonomikoa AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAREN kontu korrontean diru-sarrerera eginda emango da (Laboral Kutxa: ES55-3035/0045/21/0450079351)*

*Bere aldatik, AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAK jasotako urteko zenbateko osoa justifikatu beharko du, hitzarmen honen xede diren lanak egiteari dagokionez.*

**Laugarrena.-** Hitzarmen hau sinatzen den momentutik, AIARAKO Udala izango da AIARALDEA HEDABIDE TALDEARI dagozkion “Aiaraldea Gaur” eta “Aiaraldea Hemen” komunikabideak diruz lagunduko dituena eta bi komunikabideetan horiek laguntzeagatik aitortza publikoa izango du.



*Udalaren normalizatutako logotipoa webguneko kredituen informazioan sartuko da eta paperezko hamabost egunean behingo kredituetan (helbideak, egoitzak, etab.) hitzarmena indarrean dagoen bitartean.*

**Bosgarrena.-** Aiaraldea Hedabide Taldeak, informazioa landu eta hedatzean, edozein motatako edukiak eta gaiak argitaratuko ditu. Independentea, anitza, orekatua eta parte-hartzailea izango da. Beraz, alderdi politikoek eragitea ekidingo du eta inpartzialtasuna zainduko du. Webgunean eskualdeko beste edozein elkarteekin zein herritarrek parte hartu ahal izango dute.

**Seigarrena.-** Iritzien atalari dagokionez, edozein herritarrek izango du komunikabide hauetan bere iritzia emateko eskubidea. Komunikabideek, alderdikieriaz ihes eginda, iritzi politiko desberdinak dituzten pertsonak onartuko dituzte, guztien arteko oreka mantentzea zainduta.

**Zazpigarrena.-** Aipatutako izaera irekiari lotuta, hitzarmen honen xede diren komunikabideek edozein gai eta eduki landuko dituzte, pertsonenganako errespetua mantenduta. Ez dira inolaz ere irainak ezta difamazioak onartuko.

**Zortzigarrena.-** “Aiaraldea Gaur” eta “Aiaraldea Hemen” euskara batuan idatziko dira eta tokia izango dute eskualdeko hizkuntza-aberastasunak eta aniztasunak. Hizkuntza irakurlearentzako eredu izan daiteke, eta, ondorioz, ahalik eta eredu onena eskainiko da. Beraz, gutxieneko hizkuntza kalitatea eskainiko da.

**Bederatzigarrena.-** Udalaren urteko dirulaguntzaren zenbatekoa **JUSTIFIKATZEKO** (2.040,30 €), honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

a) Diruz lagundutako jarduketak finantzatzeko jasotako dirulaguntza guztien adierazpena, publikoak zein pribatuak izan.

b) Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen agiria.

c) Jarduerari lotutako honako dokumentu hauek:

- Diruz lagundutako ekitaldiko Gastu eta Diru-sarreraren balantzea
- Diruz lagundutako ekitaldiko Jardueraren Memoria (gauzatutako jardueraren ebaluazio-fitxa eta hori egin izanaren zinpeko adierazpena)
- Amaitutako urtearen memoria ekonomikoa (jardueraren gastua + funtzionamendu gastua), gastu eta diru-sarrerekin, dagozkion fakturak eta ordainketa-dokumentuak aurkeztuta.

Lehenengo hizpaketan adierazitako baldintzak ez badira betetzen, ez da dirulaguntza emango eta aurretiaz ordaindutako zenbatekoak berriz aztertzekeko prozedurari ekingo zaio.

Hitzarmen honen laugarren hizpaketan eskatutako justifikazioa ez bada aurkeztzen 2022ko urtarrilaren 31 baino lehen, ez da dirulaguntza emango eta aurretiaz ordaindutako zenbatekoak aztertzekeko prozedurari ekingo zaio.

Dirulaguntza hau ez da bateragarria izango Udalak urtero deitzen dituen gainerako dirulaguntzekin.

*2022ko urtarrilaren 31 baino lehen, hitzarmenaren urte berria baino lehen:*



- Urte berriaren aurrekontuaren zirriborroa
- Urte berriaren jardueren proiektuaren zirriborroa
- Arabako Foru Aldundiaren eta Gizarte Segurantzaren egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu ordainketak egunean dituela egiaztatzeko.

*Hori guztia jasota gera dadin, bi aldeek hitzarmen hau sinatu dute xede bakarrerako. Hitzarmenaren bi ale sinatzen dituzte, adierazitako data eta lekuan.*

*GENTZA ALAMILLO UDAETA,*  
*Aiarako Udaleko alkatea.*

*LUIS XABIER UGALDE GULIAS,*  
*Aiaraldea Kooperatiba Elkartearen presidentea.*

*Sin.- Gentza Alamillo Udaeta Sin.- Luis Xabier Ugalde Gulias.*  
*Idazkaria,*

*Sin.- M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas."*

**Bigarrena.-** *Alkate-udalburuari ahalmena ematea hitzarmena sina dezan.*

**Hirugarrena.-** *Erabaki hau ASASAM elkarteari jakinaraztea, hitzarmen hau sinatzeari dagozkion ondorioetarako.*

*Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.*

*Elektronikoki sinatutako dokumentua".*

Gai honen aldeko txostena eman zen Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordearen 2021eko martxoaren 9ko saioan.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du, ohiko bozketan, transkribatutako erabaki proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

**5.- Udalbatzaren erabaki-proposamena Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluari zuzeneko dirulaguntza 2021ean emateari dagokiona.-** Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluari 2021erako zuzeneko dirulaguntza emateari dagokion erabaki-proposamena. Horrek honako hau dio:

**“ERABAKI-PROPOSAMENA:**

***IKUSI DA.-*** *Udalak euskararen erabilera normalizatzea sustatu nahi du udalerrian zein Eskualdean.*

***IKUSI DA.-*** *Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua elkartearen xedea da euskararen erabileraren normalizazioaren aldeko ekintzak ezartzea, hori bera xede duten agenteekin elkarlanean.*



**IKUSI DA.-** Aiarako Udalaren eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua elkartearen arteko Lankidetzeta-hitzarmena 2021 ekitaldirako, Aiaraldean euskararen erabileraren normalizazioaren Kontseiluaren funtzionamendua eta horren jarduerak finantzatzeko.

**AINTZAT HARTU DA.-** 2021erako luzatutako 2020ko aurrekontuan, hitzarmen honek adierazten dituen gastuei aurre egiteko nahikoa diru dagoela.

Aurreko guztia dela eta, Udalbatza Osoak honako ERABAKI hau onetsi dadin proposatu du:

**Lehenengoa.-** Onestea Aiarako Udalaren eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua elkartearen arteko Lankidetzeta-hitzarmena 2021 ekitaldirako, Aiaraldean euskararen erabileraren normalizazioaren Kontseiluaren funtzionamendua eta horren jarduerak finantzatzeko.

**“LANKIDETZA HITZARMENA AIARAKO UDALAREN ETA AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUA ELKARTEAREN ARTEAN, AIARALDEAN EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIORAKO.**

Aiarako Udala, 2021eko xxxren xx(e)(a)n.

#### **HONAKO HAUEK BILDU DIRA:**

Alde batetik, Gentza Alamillo Udaeta Aiarako Udaleko alkate-udalburu jauna (NAN zk.: 44.686.448-R), aipatutako erakundearen izenean, eta Aiarako Udaleko idazkariak lagunduta, M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas (NAN zk.: 22.728.430-Z), dena ziurtatzen duena.

Beste alde batetik, JOSU ZABALA ACHA jauna (NAN zk.: 30.560.679-A), AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUA ELKARTEAREN presidentea.

#### **ESKU HARTZEN DUTE:**

Lehenengoa Aiarako Udaleko alkate-udalburua, toki erakunde honen izenean eta ordezkaritzan, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorriz.

Bigarrena, aipatutako elkartearen (IFZ: G01545599) izenean eta horren ordezkaritzan.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta Lankidetzeta-hitzarmen hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako

#### **ADIERAZTEN DUTE:**

Aiaraldean, eta kasu honetan Aiara udalerrian, euskara normalizatzeko bitarteko eta ahalegin guztiak jarri behar dira.



*Lan horretan, funtsezko zeregina dute Aiarako eskualdeko elkarteen sarea osatzen duten erakunde eta instituzioek, baita Aiara udalerrriak ere. Horiek guztiek konpromiso aktiboa dute euskararekin.*

*Nahitaezkoztat jotzen dugu gizarte-sareak eta erakundeek batera lan egitea euskara normalizatzeko, eta, ildo horretan, batera lan egin eta konpromisoa hartu nahi dugu, horien arteko sinergiak bilatzeko.*

*Horri dagokionez, AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUA foroak (2016ko otsailaren 12an sortu zuten Laudion Aiaraldeko 40 erakundek) honako funtzio hau bete nahi du: mahai bakar baten gainean jartzea gure lurraldean euskararen alde egiten diren lanak eta ekarpenak, normalizazio lana ahalik eta eraginkorrena izan dadin hausnarketak eta dinamikak partekatuzeko.*

*Hori horrela, Aiarako Udalak foro honetan laguntzeko konpromisoa hartzen du.*

*AIARAKo Udalak uste du udalerrri mailako interes publikoa duen proiektu bat dela.*

*Beraz, erakundeek euskararen erabileraren normalizazioan inplikazio aktiboa izan dezaten, bi aldeek honako lankidetzak-hitzarmen hau sinatzen dute. Honako hau da horren edukia:*

#### **KLAUSULAK:**

**lehenengoa.-** Hitzarmen honetan zehaztu egiten da 2021erako lankidetzak AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUA eta AIARAKO UDALAREN artean, euskararen erabileraren normalizazioari dagokion lanari buruzkoa. Hitzarmen honen xedea epe luzera lan egitea denez, bi aldeek adierazi dute lankidetzak aurten egingo dutela eta 2021. urtea amaitzean, hurrengo urterako baldintzak adostuko dituztela.

Urte bakoitza hastean, lehenengo 3 hilabeteetan, Aiarako Udalak erabakiko du hitzarmena berritu edo ez, dagokion Informazio batzordearen azterketa jaso ondoren, amaitutako urteari dagokion dokumentazioa jaso ondoren eta momentuko urterako baldintzen proposamena jaso ondoren. Hori guztia AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUAK bidaliko du.

Horrenbestez, hitzarmen hau 2021 urterako sinatzen da eta horren iraupena 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra bitartekoa izango da.

**Bigarrena.-** Bi alderdiek honako konpromisoa eta betebeharrak dituzte:

#### **AIARAKO UDALA:**

- *Udaleko euskara-arloko teknikariek aktiboki hartuko dute parte Kontseiluaren bilkuretan. Foro hau urtean hiru aldiz bilduko da.*
- *Teknikari horien bidez, bi alderdiek euskararen normalkuntzaren alde egin dituzten edo egin nahi dituzten lanei buruzko informazioa bilduko dute. Ildo horretan, aktiboki lan egingo dute, elkarren ahaleginak osatzeko eta topaguneak eta sinergiak bilatzeko.*
- *Aiarako Udalak ekarpen ekonomikoak egingo ditu Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak egindako jarduerak eta elkartearen funtzionamendua laguntzeko 2021. urtean zehar, jarraian adierazitako klausulan adierazitakoaren arabera.*



**AIARALDEKO EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO KONTSEILUA:**

- Euskararen normalizazioaren alde erakundeekin batera lan egiteko konpromisoa hartzen du; beraz, lankidetzaz hori sustatzeko jarrera aktiboa edukiko du une oro.
- Lankidetzaz hitzarmen honetarako, Kontseiluak honako betebeharrak eta konpromisoak izango ditu **Aiarako** Udalarekiko:

1. Diruz lagundutako hurrengo urtearen hasieran (urtarrila-otsaila), Aiaraldeko Euskararen Normalizaziorako Kontseilua Aiarako Udalaren alkate-udalburuarekin (edo horrek eskuordetutako pertsonarekin) bilduko da, baita euskara-arloko langileekin ere. Aipatutako bilkuran honako dokumentazioa aurkeztu eta azalduko da:

- Diruz lagundutako urteko jardueraren memoria.
  - Diruz lagundutako urtearen memoria ekonomikoa.
  - Hurrengo urteko plangintza (indarrekoa).
  - Hurrengo urteko aurrekontua (indarrekoa).
- Erakunde bakoitzari indarreko urtean eskatutako ekarpen ekonomikoaren proposamena (indarrekoa).

**Hirugarrena.-** Aiarako Udalak AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUARI **396,32 euroko** zenbatekoa emateko konpromisoa hartzen du.

Urteko ekarpen ekonomikoa ordainketa bakarrean emango da, dagokion urtearen lehenengo lauhilekoan, AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUA elkartearen kontuan diru-sarrerara eginda.

**Laugarrena.-** Hitzarmena sinatzen denetik, Kontseiluaren jakinarazpen-euskarriek erakunde horien logotipoak barne hartuko dituzte, eta ondoan esaldi hau agertuko da: Kontseiluarekin lankidetzaz ari diren erakundeak.

**Bosgarrena.-** AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUA elkarteak diruz lagundutako urtearen hurrengo urtarrilaren 31n Udaleko Erregistro Orokorrean honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

- a) Diruz lagundutako jarduketak finantzatzeko jasotako dirulaguntza guztien adierazpena, erakunde publikoak zein pribatuak izan.
- b) Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen agiria.
- c) Jarduerari lotutako honako dokumentu hauek:

- Diruz lagundutako ekitaldiko Gastu eta Diru-sarreraren balantzea
- Diruz lagundutako ekitaldiko jardueraren memoria
- Diruz lagundutako ekitaldian gauzatutako jardueraren ebaluazio-fitxa eta hori egin izanaren zinpeko adierazpena.

Eta hori guztia jasota gera dadin eta ados daudela adierazteko, bildutako pertsonak honako hitzarmen hau sinatzen dute lehen adierazitako leku eta datan.

**GENTZA ALAMILLO UDAETA,**  
Aiarako alkatea.

**JOSU ZABALA ACHA,**  
Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren presidentea





*Sin.- Gentza Alamillo Udaeta. Sin.- Josu Zabala Acha.*

*Nire aurrean, IDAZKARIA,*

*Sin.- M<sup>a</sup> del Carmen Rojo Pitillas.”*

**Bigarrena.-** *Alkate-udalburuari ahalmena ematea hitzarmena sina dezan.*

**Hirugarrena.-** *Erabaki hau Aiaraldeko Euskalgintzaren Kontseilua Elkarteari jakinaraztea.*

*Arespalditzan.- ALKATEA .- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.*

*Elektronikoki sinatutako dokumentua”.*

Gai honen aldeko txostena eman zen Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordearen 2021eko martxoaren 9ko saioan.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du, ohiko bozketan, transkribatutako erabaki proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

**6.- Araba Euskaraz zuzeneko dirulaguntzaren eskaera 2021. urterako.-** Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio 201eko euskararen jairako dirulaguntzaren eskaera egin duela Araba eta Laudioko Ikastolen Federazioak (Araba Euskaraz).

Esku hartu du Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) eta adierazi du Araba Euskaraz Elkarateak egindako eskaeraren aurka bozkatuko dutela, urtero bezala, euskara ikastetxe publiko batean ikasteko aukera ematen dutelako, baina hori ez delako.

Gai honen aldeko txostena eman zen Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordearen 2021eko martxoaren 9ko saioan.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta erabaki du, EAJ-PNV eta EH Bildu udal-taldearen aldeko botoarekin eta AIARA BATUZ udal-taldearen aurkako botoarekin:

**Lehenengoa.-** ARABA EUSKARAZ ELKARTEAri 300,00 euroko zuzeneko dirulaguntza ematea, “Araba Euskaraz 2021” jaialdiaren gastuak finantzatzeko.

**Bigarrena.-** Zerbitzua gauzatzeko esleipenaren gastua ontzat emango da, 2020ko aurrekontutik 2021era luzatu den eta indarrean dagoen aurrekontuko 335.481.019 2020 partidaren kargura.

**Hirugarrena.-** ARABA EUSKARAZ ELKARTEAri jakinaraztea aipatutako dirulaguntza jasotzeko honako justifikazio-dokumentu hauek aurkeztu beharko dituela:

- Gauzatutako jardueraren memoria.



- Memoria ekonomikoa, aipatu jardueraren gastu eta diru-sarrera guztiak justifikatzen dituen, beste erakunde edo elkarte batzuetatik jaso diren beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda xehatua barne.
- Udalak emandako zenbatekoaren berdina edo zenbateko handiagoa ordaindu izana justifikatzen duten fakturak eta ordainketa-ziurtagiriak.

Dokumentazio hori guztia 2021eko abenduaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da. Ez bada aurkezte, dirulaguntza berrikusiko da.

**Laugarrena.-** Erabaki horren berri ematea eskatzaileari.

**7.- Ibilaldia Elkartearen 2021. urterako zuzeneko dirulaguntza eskaera.-** Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio dirulaguntza eskatu zaiola 2021eko Ibilaldirako (Sopela/Leioa).

Aintzat hartu da ez dagoela Udal-aurrekontuan horretara bideratutako aurrekontu-aplikaziorik, eta gaiaren aurkako txosten igorri zuela Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordeak 2021eko martxoaren 9an egindako bilkuran.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez erabaki du eskaera baztertea.

**8.- Herri Urratsen 2021erako zuzeneko dirulaguntzaren eskaera.-** Jarrian, Udalbatzari jakinarazi zaio “Herri Urrats” elkarteak aurkeztutako eskaera; bertan Iparraldeko Ikastolen 2021erako jairako laguntza eskatzen du.

Gai honen aldeko txostena eman zen Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordearen 2021eko martxoaren 9ko saioan.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) adierazi du eskaera bat egin nahi duela; izan ere, ez daki jaia egin ahal izango den osasun-egoeratik, eta, beraz, jakin nahiko luke elkarteari laguntzeko konponbideren bat egon daitekeen.

Alkate jaunak erantzun dio elkarte honek, gainerako guztiek bezala, dirulaguntza jaso izanaren xedea beteko duela justifikatu behar duela. Edonola ere, konponbideren bat dagoen aztertuko da Udalak dirulaguntzaren bat eman ahal izateko.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH Bildu) adierazi du argi dagoela Udalak dirulaguntzak eman behar dituela, baina haiek eskatzen dutena da laguntzaren bat emateko jaia ospatu ezin bada ere (egungo osasun-egoeratik).

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez erabaki du

**Lehenengoa.-** “HERRI URRATS” elkarteari zuzeneko dirulaguntza ematea, 300,00 euroko zenbatekoan, Iparraldeko Ikastolen 2021eko jaia ospatzearen gastuak finantzatzeko.

**Bigarrena.-** Gastua onestea, 2020ko aurrekontutik 2021era luzatu den eta indarrean dagoen aurrekontuko 335.481.019 2020 partidaren kargura.



**Hirugarrena.-** “Herri Urrats” elkarteari jakinaraztea aipatutako dirulaguntza jasotzeko honako justifikazio-dokumentu hauek aurkeztu beharko dituela.

- Gauzatutako jardueraren memoria.
- Memoria ekonomikoa, aipatu jardueraren gastu eta diru-sarrera guztiak justifikatzen dituen, beste erakunde edo elkarte batzuetatik jaso diren beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda xehatua barne.
- Udalak emandako zenbatekoaren berdina edo zenbateko handiagoa ordaindu izana justifikatzen duten fakturak eta ordainketa-ziurtagiriak.
- Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko ordainketak egunean izatearen egiaztatzea edota Aiarako Udalari hori egiaztatzeko baimena ematen dion dokumentua.

Dokumentazio hori guztia 2021eko abenduaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da. Ez bada aurkezte, dirulaguntza berrikusiko da.

**Laugarrena.-** Erabaki horren berri ematea eskatzaileari.

**9. – Udalbatzaren erabaki-proposamena, ondasun babestuen udal-katalogoa aldatzeko hasierako onespina emateko eta Luiaondoko Dorrea kaleko 13 zenbakiko eraikina auri-deklaratzeko espedienteari hasierako emateko.** – Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio ondasun babestuen udal-katalogoa aldatzeko hasierako onspenari eta Luiaondoko Dorrea kaleko 13 zenbakiko eraikina auri-deklaratzeko espedienteari hasiera emateari dagokion erabaki-proposamena. Horrek honako hau dio:

### **“UDALBATZAREN ERABAKI-PROPOSAMENA**

**IKUSI DA.-** Francisco Javier Aguirre Ganzabal jaunak Luiaondoko Dorrea kaleko 13 zenbakiko eraikina auri-deklaratzeko eskaera aurkeztu zuen, 2019ko azaroaren 12an (erregistro sarrera-zenbakia: 4009), eta horri erantsita dago Eguia Solaun arkitektoek idatzitako etxebizitza-erakinaren auri-deklarazioaren txostena.

Eta 2020ko ekainaren 16an aurreko eskaera zuzentzeko aurkeztutako dokumentazioa (erregistro sarrera-zenbakia: 1802), eskritura publikoaren fotokopia eta jabetza-erregistroaren ziurtagiria, eskatzailea eraikinaren titularrak dela egiaztatzen duena, zeinaren auri-eskera egiten baitu.

**IKUSI DA.-** Udal-zerbitzu teknikoaren txostena, 2021eko otsailaren 9koa, honako hau dioena:

- Eraikina 622 zenbakiarekin dago katalogatuta indarrean dauden Arau Subsidiarioetan, eta 221.3 artikuluan zehazten da udalak katalogatutako ondasunak ezin direla eraitsi, eta neurri osagarri gisa jasotzen dute auri-egoera Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 36. artikuluan aurreikusitako baldintzetan arautzea.

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zentroak Udalari jakinarazi dionez, oinarrizko babeseko kultura-ondasunen definizioa oraindik erregelamendu bidez garatzeke dago, eta, garatzen den bitartean, auri-deklarazioa udalari dagokio, hirigintzako legerian



oinarrituta, eta ez dira aplikatzekoak indarrean dagoen Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen desafektazio eta aurri kasuak.

- Aurri-deklarazio legalaren espedienteari hasiera ematearen aldeko txostena egin da, berri eman da txosten teknikoan aurri-egoera ekonomikoa egiaztatu delako, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 201.1 artikularekin bat etorritz.

- Aurri-deklarazioaren legezko prozedurari hasiera eman ondoren, higiezina deskatalogatzeko izapideak egingo dira, aipatutako Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 100. artikuluko prozeduraren bidez, eta jendaurrean jartzeko epearen barruan, txostena eskatuko zaie Arabako Foru Aldundiko Ondare Historiko-Arkitetkonoaren Zerbitzuari eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzari.

**IKUSI DA.-** Euskal Kultura Ondarearen EAEko Zentroaren txostena, 2020ko maiatzaren 27koa, udal-katalogoan sartutako beste higiezin bati dagokion espediente batean emana. Bertan, honako hau ondorioztatzen da:

- Higiezin bat Arau Subsidiarioen Katalogoan sartzeak ez du zuzenean zehazten Oinarrizko Babeseko Kultura Ondasun gisa hartzea, ondasun horien definizioa oraindik erregelamendu bidez garatzeke baitago; beraz, ordura arte, 6/2019 Legean aurreikusitako oinarrizko babes-mailari buruzko xedapenak ez zaizkie nahitaez aplikatu behar udal-katalogoan sartutako ondasunei.

- Udal-katalogo batean sartutako eraikinen legezko aurri-egoera deklaratzeko prozeduran, ez dira bidezkoak 6/2019 Legean aurreikusitako jaregite- eta aurri-kasuak, soilik Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan sartutako ondasunetarako daude aurreikusita.

- Legezko aurri-egoera deklaratzeko, kasu honetan, udalari dagokio eksklusiboki, hirigintza-legeriaren preskripzioetan oinarrituta; horren arabera, ezin da baimendu aurri-egoeran deklaraturako eraikin katalogatuak eraistea (2/2006 Legearen 201.3 d) artikulua).

- Udal-katalogoa aldatuta soilik baimendu ahal izango litzateke hura eraistea, katalogo hori baztertzeko. Aldaketa hori Arabako Foru Aldundiko Ondare Historiko-Arkitetkonoaren Zerbitzura eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzara bidali beharko litzateke, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 100. artikulua betez, dagokion txostena egin dezan.

**EBAZPENA.-** Amurrioko Jabetza Erregistroaren ohar soila aurkeztu da, erregistro-titularra aurri-deklarazioaren eskatzailea dela egiaztatzen duena.

Eta ez dago jasota eraikineko bizilagunik edo okupatzailearik, eta, eskatzailearen adierazpenen arabera, duela hamarkada batzuetatik hutsik dago.

**EBAZPENA.-** Legezko aurri-egoera justifikatu da, 201.1 artikuluen arabera, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 199.2 artikularekin lotuta; izan ere, kalteak konpontzeko kostua higiezinaren egungo birjarpen-balioaren % 60 baino handiagoa da, eta, gero, eraikinari



egiturazko segurtasuna eta finkapena itzultzeko beharrezkoak diren konponketen kostuak kontserbazio-betebehar normalaren muga gainditzen du.

**EBAZPENA.-** Ezin da eraikina eraitsi, Arau Subsidiarioetan katalogatuta dagoelako; beraz, legezko aurre-egoera deklaratzeko bada eta alde aurretik deskatalogatzen bada soilik eraitsi ahal izango da, segurtasun-baldintzak bermatzeko.

Eta eraikina udal-katalogotik kanpo uztea justifikatuz jotzen da; izan ere, udal-zerbitzu teknikoaren txostenetik ondorioztatzen denez, eraikinak eraikuntza-irtenbide berezi bat zuen fatxadaren baina, aurre-irtenbide teknikoan adierazten den moduan, fatxada nagusiaren hegaleko hormapikoan, adreiluzko zur-bilbaduraren itxitura mistoa galdu da, segurtasun-arazoak direla eta, kendu egin da, eta, hutsik dagoen eraikina segurtasun-baldintza eskasetan dago, eta horrek arrisku-egoera dakar, bide publikoarekin aurrez aurre baitago.

**AINZAT HARTU DA.-** Indarrean dauden Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen (ALHAO, 20. zk., 2005eko otsailaren 17koa), 221.3 artikuluan xedatutakoa, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 100., 199.2 eta 201.1 artikuluei eta Toki-korporazioen Toki-araubideari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 d) eta 49. artikuluei dagokienez.

Udalbatza Osoak honako **ERABAKI** hau onetsi dadin proposatu da:

**Lehenengoa.-** Luitaondoko Dorrea kaleko 13 zenbakiko eraikina aurre-deklaratzeko espedienteari hasiera ematea, legezko aurre-egoera justifikatu dela onartuta, 201.1 artikulua arabera, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 199.2 artikulua lotuta.

Eta aipatutako txosten hori jabetzari helaraztea, eta 15 egun balioduneko epea ematea alegazioak egin ditzan edo egokituz jotzen duen dokumentazioa aurkez dezan. Halaber, jakinaraziko zaio aurre-deklarazioaren espedientea eten egingo dela, ezin direlako ezarri dagozkion betebeharrak birgaitzeari edo eraispentari dagokionez, harik eta eraikina deskatalogatzeko espedientea, udal-katalogoarena, ebatzen den arte, eta, deskatalogatzen bada, ezin dela eraitsi harik eta eraisteko egikaritze-proiektua aurkeztu arte, Arkitektoen Elkargo Ofizialak ikusi eta onetsia.

**Bigarrena.-** Udal-katalogoa aldatzeko espedientea hastea, Luitaondoko Dorrea kaleko 13 zenbakiko eraikina (622. zenbakiarekin katalogatuta dagoena) katalogotik kanpo uzteko; izan ere, eraikinak fatxadaren eraikuntza-irtenbide berezi bat bazuen ere, adreiluzko zur-bilbaduraren itxitura mistoa galdu da, segurtasun-arazoak direla eta, kendu egin da, ez dago interes kulturalerako beste elementurik, eta, hutsik dagoen eraikina segurtasun-baldintza eskasetan dago, eta horrek arrisku-egoera dakar, bide publikoarekin aurrez aurre baitago.

Espedientea jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea 30 egun balioduneko epean, ALHAOn iragarkia argitaratuz eta jabetzari jakinaraziz, erreklamazioak edo iradokizunak aurkez ditzaten. Eta jendaurrean jartzeko epearen barruan, txostena eskatzea Ondare Historiko-Arkitetkonoaren Zerbitzuari eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzari.

**Hirugarrena.-** Ebazpen hau jakinaraztea, 2021eko otsailaren 9ko udal-zerbitzu teknikoaren txostenaren kopiarekin batera, Eusko Jaurlaritzan eta Arabako Foru Aldundian kultura-ondarearen arloan eskumena duten organoei eta jabetzari.



Arespalditzan, ALKATEA.- Sin. Gentza Alamillo Udaeta.

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) adierazi du, gairerrendako puntu honi dagokionez, honako hau dioen idazki bat irakurri nahi duela:

*“Patrimonio*

*El patrimonio cultural es el conjunto de bienes heredados del pasado en los que cada sociedad reconoce unos valores dignos de ser conservados y transmitidos. Es la herencia cultural de nuestra comunidad. En el caso de Luiaondo existen 35 edificaciones que en el año 2002 se considera que todas tenían un buen estado de conservación, tenían un interés arquitectónico e histórico-ambiental bajo y un interés funcional medio. Existen otras 7 edificaciones con un interés superior.*

*La importancia, a nuestro entender, de los edificios de interés bajo, no radica en el tipo de interés sino en su abundancia. Es un ejemplo de pueblo calle, situado en lo que fue eje del comercio entre Castilla y Europa, donde la ganadería fue algo testimonial, y cuya función se basó en el transporte y almacenaje de mercancías. Este conjunto de edificios con sus fachadas singulares dan personalidad propia a Luiaondo y le aportan las raíces*

*En este pleno se va a proceder a la incoación de un expediente de declaración legal de ruina de uno de estos edificios que en el año 2002 se consideraba que estaba en buen estado de conservación. No es el único edificio que se ha deteriorado durante este periodo en Luiaondo y no es el único en Ayala. Ante esta situación queremos hacer las siguientes consideraciones:*

*1. Quienes poseen bienes culturales catalogados y sobre los inventariados, Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, están obligados a conservarlos, cuidarlos y protegerlos debidamente para asegurar su integridad y evitar su pérdida y destrucción. En cierta manera, estos bienes lo son también de la comunidad a la que pertenece y no solo a su dueño. Aceptar la desaparición de uno de estos bienes empobrece a la comunidad.*

*2. La desaparición de uno de estos edificios merman el conjunto que nos habla de lo que fue Luiaondo.*

*3. La falta de escudos para proteger este tipo de bienes hacen que aproximadamente un tercio de los edificios del municipio de Ayala puedan ser desafectados y que desaparezca buena parte de nuestra historia y nuestras raíces.*

*4. La misma ley mencionada, habla de la posibilidad de incoar expediente sancionador a quien ha incumplido el deber de conservación. ¿Se ha tramitado en alguna ocasión un expediente de este tipo?*

*Por último, pedimos al ayuntamiento y al arquitecto municipal que se abra un periodo de reflexión y debate para acordar formas que se pueden utilizar para conservar nuestro patrimonio en aras de que este no desaparezca. En último término, la protección de dichos bienes hablan del nivel cultural y del nivel de civilización de una comunidad.*

*Ondarea*

*Kultura-ondarea gizarte bakoitzak balio duinak aitortzen dituen iraganetik jasotako ondasunen multzoa da. Gure komunitatearen herentzia kulturala da. Luiaondoren kasuan, 2002. urtean 35 eraikinek kontserbazio-egoera ona zuten, arkitektura- eta historia- eta ingurumen-interes txikia zuten eta erdi-mailako interes funtzionala. Interes handiagoko beste 7 eraikin daude.*

*Interes txikiko eraikinen garrantzia, gure ustez, ez dago interes-mailan, ugaritasunean baizik.*



*Herri-kalearen adibide bat da, Gaztela eta Europa arteko merkataritzaren ardatz izan zena, non abeltzaintza testigantzazko zerbait izan zen, eta bere funtzioa salgaien garraioan eta biltegitratzean oinarritu zen. Fatxada bereziak dituen eraikin multzo horrek berezko nortasuna eta sustraiak ematen dio Luiaondori.*

*Osoko bilkura honetan eraikin horietako baten legezko aurre-deklarazioaren espedientea irekiko da, 2002. urtean kontserbazio-egoera onean zegoena. Ez da aldi honetan Luiaondon hondatu den eraikin bakarra eta ez da Aiarako bakarra. Egoera horren aurrean, honako ohar hauek egin nahi ditugu:*

*1. Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen arabera katalogatutako eta inbentariatutako kultura-ondasunak dituztenek ondasun horiek zaindu, eta behar bezala babestu behar dituzte, ondasun horien osotasuna ziurtatzeko eta haien galera eta suntsipena saihesteko.*

*2. Neurri batean, ondasun horiek kide den erkidegoarenak ere badira, eta ez jabearenak bakarrik. Ondasun horietako baten desagertzea onartzeak komunitatea pobretzen du.*

*3. Eraikin horietako baten desagertzeak Luiaondo izan zenaz adierazten digun multzoa murrizten du.*

*4. Horrelako ondasunak babesteko ezkuturik ez dagoenez, Aiarako udalerriko eraikinen heren bat, gutxi gorabehera, desfektatu egin daiteke, eta gure historiaren eta sustraien zati handi bat desagertu.*

*5. Aipatutako lege horretan bertan, kontserbatzeko betebeharra bete ez duenari zehapen-espedientea irekitzeko aukera aipatzen da. Inoiz zabaldu al da horrelako espedienterik?*

*Udalari eta udal-arkitektoari eskatzen diegu hausnarketa eta eztabaida aldi bat ireki dezatela, gure ondarea ez desagertzeko eta kontserbatzeko erabil daitezkeen moduak adosteko. Azkenik, ondasun horien babesak komunitate baten kultura- eta zibilizazio-maila azaltzen ditu.”*

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) adierazi du, azaldutakoaren ondorioz, puntu honetan abstenitu egingo dela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du higiezinak mantentzeko betebeharra jabetzari dagokiola, eta udal-aurrekontua eskasa dela, baina batzuetan esku-hartzeak aurreratu behar direla, segurtasuna arriskuan jartzen ari delako. Gaineratu du EH Bilduri eskatzen diola eztabaida eta hausnarketa baino gehiago, jarduera-proposamen bat egin dezala jabetza pribatu bati buruzko ekintza horiei ekiteko, arlo publikotik abiatuta, eta gustura eztabaidatuko dituztela proposamen horiek, baina ahaztu gabe proposamen horiek legezko lekua izan behar duela.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) erantzun du bere taldea ados dagoela proposamenak egitearekin, baina arazo honek kolektibitate osoari eragiten diola, eta ez EH Bilduri bakarrik.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du berak ez duela esan EH Bilduren arazoa denik.



Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) errepikatu du dokumentu bat aurkez dezakeela, baino guztion kontua dela.

Gai honen aldeko txostena eman zen Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuetako eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2021eko martxoaren 9ko saioan.

Esku-hartzeak amaituta, AIARA BARUZ eta EAJ-PNV udal-taldeek ordezkariek aldeko botoarekin eta EH Bildu udal-taldearen ordezkariek abstentzioarekin erabaki da transkribatutako erabaki proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

**10.- Udalbatzaren erabaki-proposamena, Aiarako Udalak Lantenoko Haraneko Arte Eskolarekin 2021ean sinatutako lankidetzaren hitzarmenari dagokiona.**- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio 2021ean Aiarako Udalak Lantenoko Haraneko Arte Eskolarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenari dagokion erabaki-proposamena bilkura honetako gai-zerrendan sartu dela, dagokion Informazio Batzordeak jakinarazi gabe, 2020ko justifikazioaren azterketa amaitu delako eta 2021erako dirulaguntza emateko akordioa gehiago ez atzeratzeko eta jarduerak egin ahal izateko.

Horregatik, gai hau ez denez alde aurretik dagokion Informazio Batzordearen irizpenaren mende jarri, Toki Erakunde Antolamendu, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, egokia da gai-zerrendan sartzea.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du, puntu hau gai-zerrendan sartzea.

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Aiarako Udalak Lantenoko Haraneko Arte Eskolarekin 2021ean sinatutako lankidetzaren hitzarmenari dagokion proposamena. Horrek honela dio:

### **“ERABAKI-PROPOSAMENA**

***IKUSI DA.-*** Udalak lankidetzan aritzeko eta Lantenoko Haraneko Elkarte Kultural Artistikoak Aiarako udalerrian urtero egiten duen kultur lanak sustatzeko duen interesa.

***IKUSI DA.-*** Aiarako Udalaren eta Lantenoko Haraneko Elkarte Kultural Artistikoaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren proposamena, marrazketa, pintura, zeramika eta zur-taila diziplinak garatzeak dakartzan gastuen zati bat diru laguntzeko, zehazki, irakasleen kontratazioko eta ikastaroak emateko beharrezkoak diren materialen gastuak.

***AINTZAT HARTU DA.-*** 2021erako luzatutako 2020rako udal-aurrekontuan hitzarmen honek adierazten dituen gastuei aurre egiteko nahikoa diru dagoela.

Aurreko guztia dela eta, Udalbatza Osoak honako **ERABAKI** hau onetsi dadin proposatu da:

**Lehenengoa.-** 2021 ekitaldiko Aiarako Udalaren eta Lantenoko Haraneko Elkarte Kultural Artistikoaren arteko lankidetzaren hitzarmena onestea, marrazketa, pintura, zeramika eta zur-taila diziplinak garatzeak dakartzan gastuak ordaintzeko, zehazki, irakasleen kontratazioko eta ikastaroak emateko beharrezkoak diren materialen gastuak. Testuak honako hau dio:





**“AIARAKO UDALAREN ETA “LANTENOKO HARANEKO” ELKARTE KULTURAL  
ARTISTIKOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, 2021. URTEA**

Arespalditzan, 2021eko      ren      (e)(a)n.

**HONAKO HAUEK BILDU DIRA**

*Alde batetik, GENTZA ALAMILLO UDAETA Aiarako Udaleko alkate-udalburu jauna, Aiarako Udaleko idazkariak lagunduta, M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas, dena ziurtatzen duena.*

*Beste alde batetik, andrea, adinez nagusikoa (NAN zk.: ), “Lantenoko Haraneko” Elkarte Kultural Artistikoko presidentea,*

**ESKU HARTZEN DUTE**

*Lehenengoa Aiarako Udaleko alkate-udalburua, toki erakunde honen izenean eta ordezkartzan, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritz.*

*Bigarrena, “LANTENOKO HARANEKO” Elkarte Kultural Artistikoaren (IFZ: G-01103795) izenean eta ordezkartzan. Elkarreak berak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu du bere izaera eta ordezkartza, aktaren fotokopia aurkeztu baitu, eta horren bidez aukeratu eta izendatu baita “LANTENOKO HARANEKO” Elkarte Kultural Artistikoaren presidentea.*

*Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta **Lankidetzahitzarmen** hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako*

**HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:**

**I.-** *Aiarako Udalak, kultura eta artea, eta horren erabilera arlo guztietan sustatzeko udalerriko interes publikoaren arabera, besteak beste, honako ekimen hauen arabera jardungo du:*

- *Aisialdian, kultura-eskaintzan, herriko jaietan eta beste azoka batzuetan erabiltzeko aukerak sortzea.*
- *Kultura eta artea sustatzeko kanpainak eta jarduerak antolatzea.*
- *Egokitzat jotzen diren bestelako ekimenak.*

**II.-** *Aiarako Udalak udalerrian kultura eta artea sustatu nahi du; beraz, hori gauzatzeko, besteak beste, hitzarmen hau sinatzen du. Hitzarmenak “LANTENOKO HARANEKO” Elkarte Kultural Artistikoari emango zaion urteko dirulaguntza arautzen du,*



*marrazketa, pintura, zur-taila eta zeramika diziplinak garatzeko, irakasleen eta horiek emateko behar diren materialen kostua diruz laguntzeko.*

**III.-** “LANTENOKO HARANEKO ELKARTE KULTURAL ARTISTIKOA” izeneko elkarte irekita dago, bai aiararrentzat, bai udalerriko elkarteentzat. Elkarte horren helburua kultura eta artea sustatzea da, bai eta horren erabilera soziala ere.

**VI.-** Aplikatu beharreko legeria zehatz-mehatz betez, eta Lankidetzaren hitzarmenak sinatzeko Toki Erakundeek duten eskumenari jarraiki, bi aldeek Lankidetzaren hitzarmen hau formalizatzen dute, eta jarraian adierazitakoak bete beharko dituzte:

### **HIZPAKETAK**

**LEHENENGOA.-** Aiarako Udalak hitzarmen honekin duen xedea da artea eta kultura sustatzeko hainbat ekimen eta jarduera sustatzea, “LANTENOKO HARANEKO” Elkarte Kultural Artistikoarekin lankidetzan eta horrekin koordinatuta.

Horretarako, “LANTENOKO HARANEKO” Elkarte Kultural Artistikoak Aiarako udalerrian honako jarduketa hauetan lagundu behar du:

- San Prudentzio jaietako azalen lehiaketan epaimahai gisa arituko da.
- Epaimahai lanak egingo ditu Aiarako udalerrian egiten diren lehiaketa artistikoetan.
- Marrazketa, pintura, zeramika eta zur-taila lantzeko kultura-ikastaroak antolatzea eta garatzea.

**BIGARRENA.-** Aiarako Udalak garatu nahi duen sustapen-jardueraren edukia zehaztuta dago “LANTENOKO HARANEKO” Elkarte Kultural Artistikoak dituen urteko jardueraren gastuen dirulaguntzan, marrazketa, pintura, zeramika eta zur-taila diziplinetan.

**HIRUGARRENA.-** Administrazio honek jarduera sustatzeko emango duen dirulaguntza marrazketa, pintura, zeramika eta zur-taila diziplinen programa garatzeak dakartzan gastuak ordaintzeko izango da; zehazki, irakasleak kontratatuzko gastuak, bai eta aipatutako diziplinak emateko behar den materiala ere.

Irakasleak kontratatuzko gastuen eta behar bezala justifikatutako diziplinak emateko behar den materialaren arabera kalkulatu da dirulaguntza, eta elkarteak diziplina bakoitzeko ikasleen edo erabiltzaileen kuotengatik lortzen dituen diru-sarrerak deskontatuko dira, bai eta kontzeptu horietarako lortzen diren beste dirulaguntza batzuk ere, kontuan hartuta elkarteak ezin izango duela gainfinantzaziorik lortu aipatutako diziplinetan.

Hitzarmen honi dagokion dirulaguntza urtean gehienez ere LAU MILA (4.000,00) EUROKOA izango da.

**LAUGARRENA.-** Dirulaguntza emateko, gutxienez ZORTZI pertsona joan beharko dute diziplina bakoitzean antolatutako ikastaroetara (parte-hartzaile bakoitzak sinatutako zinpeko deklarazioaren bidez egiaztatuta beharko da), eta ikastaroak irauten duen bitartean.

Ikastaroan parte hartzen dutenen artean baten bat Aiarako Udalean erroldatu gabe badago, dirulaguntzak udalerrian erroldatutako pertsonen zati proportzionala baino ez du hartuko.



*Era berean, nahitaezkoa izango da elkarteak dirulaguntza guztiak eskatzea beste erakunde batzuei (Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzaren etab.), jarduerari horiek finantzatzeko.*

**BOSGARRENA.-** Urteko udal dirulaguntzaren zenbatekoa **JUSTIFIKATZEKO**, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- a) *Diruz lagundutako jarduketak finantzatzeko jasotako dirulaguntza gutien adierazpena erakunde publiko zein pribatuak izan. Diru lagundutako diziplina bakoitzeko izen-emateengatik lortutako kuoten adierazpena barne.*
- b) *Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantzaren ordaindu izanaren ziurtagiria, edo, hala badagokio, presidentek sinatutako baimena Udalak erakunde horiei aipatutako baimenak eskatzeko.*
- c) *Marrazketa, pintura, zeramika eta zur-taila lantzeko ikastaroak emateko jarduerari lotutako honako dokumentu hauek:*
  - *Diruz lagundutako ekitaldiko Gastu eta Diru-sarreraren balantzea (diru-sarretan erabiltzaileen kuotak eta beste erakunde publikoen dirulaguntzak eta diziplina horietarako dituzten zuzenbide pribatuko gainerakoak sartzen dira).*
  - *Diru lagundutako ekitaldiko jardueraren memoria (gauzatutako jardueraren ebaluazio-fitxa eta hori egin izanaren zinpeko adierazpena).*
  - *Diruz lagundutako diziplinaren emateko gastu guztiak justifikatzeko dokumentuak:*
    - *Irakasleak kontratatutako gastuak: Nominen kopia, gizarte segurantzarena, dagozkien ordainketen dokumentuak eta diziplinetarako kontratatutako langileen TC-1 eta TC-2 dokumentuen kopia, eta dagozkien soldatak ordaindu izanaren egiaztagiria.*
    - *Material-gastuak: Material-gastu guztiak justifikatzeko fakturak, diziplinaren arabera behar bezala banakatuta. Fakturak jaulkipenerako lege ezarritako baldintzak bete beharko dituzte. Transferentzia bidez egin bada, ordainagiria erantsi beharko da, edo eskudirutan ordaindu bada, fakturan bertan agertu beharko da.*
  - *Hurrengo urterako jardueraren eta funtzionamenduaren urteko gastuaren aurreikuspena, bai eta foru dirulaguntzaren aurreikuspena eta, hala badagokio, urte horretarako balizko beste diru-sarrerara batzuen ere, hurrengo urteko dirulaguntza kalkulatzeko, baldin eta udalak hala eskatzen badu hitzarmen luzatzea erabaki duelako.*
  - *Hitzarmen honen xede den diziplina bakoitzean inskribatutako pertsonen bertaratze-zerrenda, honako hauek adierazita: izena eta bi abizenak, NANa eta bertaratze-sinadurak, eta inskribatutako pertsona bakoitzaren harremanetarako telefono-zenbaki bat.*

*Lehenengo hizpaketan adierazitako baldintzak ez badira betetzen, ez da dirulaguntza emango eta aurretiaz ordaindutako zenbatekoak berriaz aztertzeko prozedurari ekingo zaio.*

*Urtarriletik maiatzera bitartean edo urritik abendura bitartean, diziplina bakoitzean erroldatutako gutxieneko kopuruaren baldintza betetzen ez bada, dirulaguntza murriztu egingo da, eta bete ez den diziplinaren gastuen **zati proportzionala** kenduko zaio (irakasleak eta materiala), ez-betetzearen hilabete guztietan.*



*Hitzarmen honen bosgarren hizpaketan eskatutako justifikazioa **2022ko urtarrilaren 31** baino lehen aurkezten ez bada, ez da dirulaguntza emango eta aurretiaz ordaindutako zenbatekoak berriz aztertzeko prozedurari ekingo zaio.*

*Dirulaguntza hau bateragarria izango da udalak urtero deitzen dituen gainerako dirulaguntzekin, kultura- eta kirol-taldeentzako dirulaguntzen ordenantzarekin eta oinarri arautzaileekin bat etorritik, baldin eta hitzarmen honen bidez diruz lagundutakoak ez diren beste diziplina artistiko eta/edo jarduera batzuei dagozkien funtzionamendu-gastuetarako eskatzen badira.*

**SEIGARRENA.-** *Diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko epea diruz lagundutako urteko (2021) denbora-mugetara egokituko da.*

**ZAZPIGARRENA.-** *Dirulaguntza ordaintzeko modua honako hau da: Aiarako Udalak ezarritako gehieneko dirulaguntzaren % 80 ordainduko du hitzarmena sinatzean. Gainerako % 20 hitzarmen honen LAUGARREN klausulan adierazitako dokumentazioa aurkeztean ordainduko da..*

*Aiarako Udalak edozein momentutan eskatua ahal izango du dirulaguntzari edo jarduerari dagokion edozein informazio.*

**ZORTZIGARRENA.-** *“LANTENOKO HARANEKO” Elkarte Kultural Artistikoak egiten duen publizitate guztian, Aiarako Udalaren lankidetzeta eta babesa jaso beharko da.*

**BEDERATZIGARRENA.-** *“LANTENOKO HARANEKO” Elkarte Kultural Artistikoak hitzarmen honetan jasotako betebeharrak betetzen ez baditu, indarrean dagoen diru-laguntzei buruzko araudian aurreikusitako erantzukizun eta zehapen erregimena aplikatuko da.*

*Eta adostutakoarekin bat datozela frogatzeko, aldeek lankidetzeta-hitzarmen honen bi aleak sinatu dituzte, zuzenketarik edo urratzerik gabe, dokumentu hau osatzen duten 5 orrialdeetako bakoitzean, eta hitzematzen dute berau beteko dutela dokumentu honen goiburuan agertzen den lekuan eta egunean.*

**ALKATE-UDALBURUALA,**  
*Sin.: Gentza Alamillo Udaeta jn.*

**IDAZKARIA,**  
*Sin.: M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas and.*

**VALLE LLANTENO ARTE ETA KULTURA ELKARTEAREN PRESIDENTEA,**  
*Sin.: jn./ and.-*

*Alkateak eta Idazkari kontu-hartzaileak elektronikoki sinatutako dokumentua”.*

**Bigarrena.-** *Alkate-udalburuari ahalmena ematea hitzarmena sina dezan.*

**Hirugarrena.-** *Erabaki hau Lantenoko Haraneko Elkarte Kultural Artistikoari jakinaraztea, hitzarmen hau sinatzeari dagozkion ondorioetarako.*

*Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.*



*Elektronikoki sinatutako dokumentua.”*

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du, ohiko bozketan, transkribatutako erabaki-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

**11.- Berri ematea honako hauen inguruan: Kontaketa aktak, gastuen eta diru-sarreraren balantzea, kartillen egoera eta 2020ko uztailleko, abuztuko, iraileko, urriko, azaroko eta abenduko kreditu-aldaketak.** Jarraian, kontaketa aktei, gastuen eta diru-sarreraren balantzeari, banku-kontuen egoerari eta 2020ko uztailleko, abuztuko, iraileko, urriko, azaroko eta abenduko kreditu-aldaketei buruzko kontabilitate-agirien berri eman zaio Udalbatzari.

Udalbatza jakinaren gainean geratu dira.

**12º.- Alkatetza dekretuen berri ematea.** Jarraian, Udalbatzari 2021/95 eta 2021/150 bitarteko (biak barne) Alkatetza Dekretuen berri eman zaio, eta horien xedea, laburbilduta, honako hau da:

### **“ALKATETZA DEKRETUEN ZERRENDIA**

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/95 – Luiaondoko San Lorenzo Kaleko 20 zenbakiko Etxejabeen elkarteak.- Eraikina berritzeko obra-lizentzia ematea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/96.- D.M.A.- Obra Hasteko Baimena ematea Madariako baserrirako (I. Fasea – Hondakinak kentzea)*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2020/97.- L.C.V.- 2021/79 Alkatetza Dekretuko akatsa zuzentzea, Luiaondoko etxebizitzaren bainugela berritzeko obra-lizentzia emateari dagokiona.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/98.- J.B.Z.- Kexaako eraikin bat aurri ezartzeko izapidea egiteko dokumentazioa eskatzea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/99.- J.I.A.G.- Erretes Lantenoko etxebizitza bat eraikitzeagatik zehapen-espeditentea irekitzea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/100.- S.O.M. eta A.M.M- Izorian lursail batean obrak egiteagatik zehapen-espeditenteko isuna jartzea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/101.- Eudel.- 2021eko bazkideen kuota ordaintzea onestea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/102.- Etxaurren Ikastolako IGEa.- 2021eko urtarrileko bi urtekoen gelako talde psikopedagogikoari eta laguntzaileari nominak ordaintzea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/103.- Luiaondoko erabilera anitzeko espazioa egokitzeko obraren proiektu teknikoa idazteko zerbitzua kontratatze espeditentea onestea (Patxita etxea).*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/104.- Aiara Arabako Ur-Partzuergora (Urbide) sartzeko eskaera.*

*ALKATETZA DEKRETUA . 2021/105.- Alday Fundazioa.- Eguneko Arretarako Landa zentroaren kudeaketaren gastuen zerrenda onestea, 2021eko urtarrila.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/106.- Onestea F/2021/I zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.*



*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/107.- AFAre*n dirulaguntzen deialdira atxikitzea, 2021. urtean emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko jarduerak eta/edo programak gauzatzera bideratutako deialdira.

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/108.- Murgako Administrazio Batzordea.- Hiri-altzariak jartzeko Udaleko Obra-lizentzia ematea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/109.- MU.E.L.- Udaleko obra-lizentzia ematea Lantenoko etxebizitza batean instalazio fotovoltaikoa egiteko.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/110.- L.A.U.- Udaleko Obra-lizentzia ematea Luiaondoko etxebizitza baten sukaldea berritzeko.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/111.- J.G.A- Murgako etxebizitza bat berritzeko Udaleko Obra-lizentzia izapidetzeko dokumentazio gehigarria eskatzea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/112.- MB.S.Y.- Lantenoko etxebizitza bat berritzeko Udaleko Obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/113.- Kirolgest. S.L.- Luiaondoko fisioterapia zentroko SJA onetsi aurretik obrak amaitzeko beharra jakinaraztea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/114.- Kirolgest SL.- Luiaondoko fisioterapia zentroko lokala egokitzeko Udaleko Obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/115.- M.M.G.- Maroñon etxebizitza bat eraikitze*ko Obra-hasierako baimena ematea.

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/116.- P.D.F.C.- 57.161-147 zenbakiko Aparkatzeko txartela ematea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/117.- Alday Ongintzako Fundazioa.- Arespalditzan Adinekoen Egoitza eraikitze*ko obraren hondakinak ongi kudeatuko direla bermatzeko jarritako fidantzak itzultzea.

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/118.- T.M.O.- Luiaondoko estalpea eraikitze*agatik emandako hirigintza-agindua berrezartzeko espedientearen ebazpena.

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/119.- B.F.U.- 2021. urteko oporrak eta gozamenerako egunak onestea eta telelan-modalitatea onestea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/120.- L.L.I.- Administ*rari lanpostuan mantentzea titularra itzuli arte.

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/121.- A.F.A- 2020ko BEZari dagokion urteko likidazioa onestea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/122.- Langileen eta alkatearen nominei dagokien hileroko txostena onestea, 2021eko otsaila.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/123.- Elkarkidetz*a Pentsioak.- 2021eko otsaileko likidazioaren ordainketa onestea.

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/124.- N.DB.R.- Luiaondoko Restergo kaleko 7-2.B etxebizitzako barnealdeko eskailera aldatz*eko Udaleko Obra-lizentzia ematea.

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/125.- Agiñagako Administrazio Batzordea.- Gizarte Zentroan igogailua jartzeko Udaleko Obra-lizentzia ematea.*



*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/126.- J.I.A.G.- Erretes Lantenon etxebizitza bat eraikitzeagatik hirigintzako antolamenduaren espedienteari alegazioak aurkezteko epea handitzea onestea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/127.- I.I.A.- Murgan eraikin bat ordenazioz kanpoko ezartzeko espedientea hastea jakinaraztea eta eskatutako hirigintza-txostenaren berri ematea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/128.- A.C..P.- TMIZaren salbuespena ematea, minusbaliotasuna egiaztatzeagatik.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/129.- AJA.G-A.- Lantenoko 2. poligonoko 1738 eta 1739. finkek banatzeko lizentzia ematea.*

*ALKATETZA DEKRETUA - 2021/130.- M.I.S.U.- Luiaondon lursail bat bereizteko lizentzia ematea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/131.- Udaleko Alderdi Politikoei ekarpen ekonomikoa egitea, 2021eko otsaila.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/132.- Gizarte Segurantzaren D.N.- 2021eko urtarrileko kuota ordaintzea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/133.- Añeseko Administrazio Batzordea.- Añesen hobi septikoa berritzeko obraren hondakinak kudeatzearen fidantza eskatzea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/134.- Alkateak bere eskuduntzak eskuordetzea, ezkontza zibila egiteko.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/135.- M.A.M.O.- Murgan atxikitako eraikuntza eraikitzeagatik hirigintza antolamendua berrezartzeko espedientea irekiko dela jakinaraztea eta txosten teknikoaren berri ematea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/136.- E.A.M.- Murgako baserri bat birgaitzeko obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/137.- Elkargi.- Eskoop S.coop enpresaren izenean idatzitako banku-abala itzultzea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/138.- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA.- 2020ko zuzeneko diru-laguntzaren murrizketa eta itzulketa-prozedura hastea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/139.- Erretes Lantenoko Administrazio Batzordea.- Erretes Lantenoko ur-biltegiko irteeran kontadoreak instalatzeko Udaleko Obra-lizentzia ematea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/140.- Ez esleitzea eta artxibatzea 2020-2021 ikasturterako kultura- eta kirol-tailer eta -ikastaro artistikoak emateko zerbitzuen kontratazio espedientea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/140.- Ez esleitzea eta artxibatzea 2020-2021 ikasturterako Triki-Tixa Eskolako ikastaroak emateko zerbitzuaren kontratazio espedientea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/142.- Menoyo Gochiren Eraikuntzak 2017 SL.- Zuhatzan PP Urbanizazioa hitzartzeko Estatutuak eta Oinarriak berriz ere zuzentzeko eskatzea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/143.- Murgako Administrazio Batzordea.- Murgan ariketa bio-osasuntsuen eremua eta haurren jolastokia instalatzeko obraren hondakin kudeaketarako fidantza eskatzea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/144.- San José y Buenaventura Fundazioa.- Arespalditzan Zerrajería Jauregiaren ondoko eraikinak eraisteko Obra Hasteko Baimena ematea.*



*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/145.- Ibaizabal Gaztetxea Gazteen Elkarte.- Emandako dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa eskatzea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/146.- TMIZaren errolda onestea 2021 ekitaldirako.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/147.- Udal-artxibategiko espedienteak eta dokumentuak kontsultatu eta horietarako sarbidea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/148.- I.L.B.- Lantenoko etxebizitza bat berritzeko obraren hondakinak kudeatzeko fidantza itzultzea eta Lehenengoz Okupatzeko Behin-behineko lizentzia ematea.*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/149.- Murgako Administrazio Batzordea – Aparkalekua eraikitzeke eskatutako Obra-lizentziaren espedientea artxibatzea horri uko egiteagatik (I. fasea).*

*ALKATETZA DEKRETUA – 2021/150.- Etxaurren Ikastolako IGEa.- 2021eko otsaileko bi urtekoen gelako talde psikopedagogikoari eta laguntzaileari nominak ordaintzea.*

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) 2021/104 Dekretuaren inguruan galde egin du, Aiara Arabako Ur-Partzuergoari (Urbide) atxikitzeari buruzkoa.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu), eguneko gai-zerrendako 9. puntuari dagokionez, adierazi du 21/98 Dekretua Ondarearen galerako beste kasu posible bat dela.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

## **12.- Eskaerak eta galderak.-**

**Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ)** honako galdera edo eskea egin du:

- Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) galdetu du nola doan Urbidera atxikitzeke prozesua.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak erantzun du hartutako udalbatza-erabakiaz gain, Urbidera atxikitzeke eskabide-dekretu bat bidaltzeko eskatu zigutela, aipatutako erabakiarekin bat zetorrena. Era berean, adierazi du Batzordean adierazi zela hori eta CAKUrekin bilera bat izango dutela. Aldaketak gertatu ahala jakinaraziko dira.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) galdetu du Urbidek ezer esan duen gure eskaerarekiko.

Alkate jaunak ezetz erantzun dio, Urbideren Batzarrarekin bildu behar dela.

**Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu)** honako eskaerak edo galderak egin ditu:

- Galdetu zitzaion euskararen araudiari dagokionez, esan du Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, 2001eko martxoaren 21eko alean (33 zk.) dagoela argitaratuta Aiara Udalerrian euskararen erabilerari buruzko Ordenantza, baina hori ez dago Udaleko webgunean.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) esan du garrantzitsua iruditzen zaiola Ordenantza webgunean egotea, zer betetzen den eta zer ez aztertu ahal izateko. Esan





du dokumentuak euskaraz egoteko eskatzen dela, eta planak hori jasotzen badu, hogeitau urte igaro ondoren, hori betetzen hasi beharko genuke; esan du garatzeke geratzen dena aztertu behar dela. Amaitzeko, esan du eskatzen dutena Euskararen Erabilera Plana Udaleko webgunean argitaratzea dela, eta horren aplikazioan aurrera egiteko eskatzen dutela, guztion artean euskararen ezarpenean aurrera egin ahal izateko.

- Galdetu du Zuhatzako Administrazio Batzordeak egindako eskaeraren inguruan, Zuhatzako Plan Partzialaren inguruan txosten bat egiteari dagokiona.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Idazketa-taldeak ez duela oraindik ezer bidali. haiei Plan Partzialaren dokumentazio osoa bidali zitzaien eta txostena jasotzearen zain gaude. Hori jasotzean, guztiei bidaliko zaie.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) galdetu du oso luze joko duen.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du ez dakiela, berriz ere galdetuko dutela eta haiekin hitz egingo dutela epearen inguruko aurreikuspen zehatza izateko.

2021/142 Alkatetza Dekretuaren inguruan galdetu du, Menoyo Gochiren Eraikuntzak 2017 SL enpresari dagokionaren inguruan.

Alkate jaunak erantzun du Estatutuak eta Oinarriak onesteko eskaera zuzentzeko eskatu zaiela, jabeen % 50 diren jabeak aurkezten dituztela egiaztatu behar dutelako.

- Berriz ere galdetu du Udalerrian banda zabala hedatzearen inguruan.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jarri nahi dutela datu zehatzak jasotzeko; hori izatean, dena jakinaraziko dute. Esan du ez dela Zuhatza agertzen, ziurrenik Okondotik deitu zituztelako.

**Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH Bildu)** honako galdera edo eskaera hauek egin ditu:

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) ASASAMi buruz egindako oharri dagokionez eta Aldundiak pisu bat gehitzeari uko egin izateari dagokionez, uste du erabat hutsala dela azpimarratzea nor den orain diputatua. Garrantzitsuena da Kuadrillak aldarrikatzea Laudion beste pisu bat jartzea, egungo egoerarekin inoiz baino beharrezkoagoa baita.
- EH Bilduri eskatzen zaion proposamenari dagokionez, Ondarearen mantentzeari buruzkoa, adierazi du haien proposamena hausnarketa-epe bat irekitzea dela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Udalak hausnartu dezakeela, baina Legeak babestutako interesdunek egindako eskaerei erantzun behar diela. Gainera, adierazi du Karmele Población Martínez zinegotzi andreaken akatsa zuzendu duela Aldundiarekiko karguei dagokienez; izan ere, horrela osoko bilkura jarraitu ahal izango da eta idazkariak aktan behar bezala jaso ahal izango du.



Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH Bildu) adierazi du ulertu egiten duela alkate jaunak dioena, interesdunaren eskaerari erantzun behar zaio, bai, baina hemendik aurrera hausnarketa-epe bat egon beharko litzateke.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du oraingoan berandu iritsi garela, baina uste du guztiok gaude ados hausnartzeko beharrari dagokionez.

Iñigo Pinedo Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du HAPO bat onetsiko dela eta horrek Udalerriko interes kulturalako eraikinak babesten dituela, katalogoa onetsita baitu. Horrez gain, esan du erabakiak aipatutako baserriari dagokionez, zehazki, horrek ez duela Luiaondoko ohiko tipologia eta interes txikia duela. Ez du ulertzen zergatik Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak esan duen ez dela ezer egin.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) adierazi du ikaragarri kezkatuta daudela Ondarearen suntsiketarekin.

Iñigo Pinedo Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz ere esan du bera zinegotzi lanetan egon den denboran zehar ez dela Luiaondon baserririk bota.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) esan du 2002. urtearen inguruan ez dagoela interes handirik duen eraikinik. Iñigo Pinedo Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du baietz.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du HAPOa izapidetzean ikaragarriko lana egin dela eta eraikin bakoitzaren fitxa zehatza egin dela.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du berak ez duela esan ez denik ezer egin, ezta hausnartu ez denik ere. Berak esan duena da hausnartzeko eskatzean, egin beharko litzatekela.

Iñigo Pinedo Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) esan du horren inguruan asko hausnartu dutela, HAPOan horren inguruko alegazio asko baitago.

Eta jorratzeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak amaitutzat eman du bilkura hemeretziak eta berrogeita hamalau minutuak direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, neuk, idazkaria naizen aldetik, fede ematen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita bateko martxoaren hamazortzian.

O.E.

ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas.